

Garapen iraunkorra eta gaztedia. Bizkaiko erradiografia

Trinidad L. Vicente eta Fernando Mendia



Iraunkortasunerako lanean
Konpromisoa eta etorkizuna

BIZTANLEEN MAHAIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Garapen iraunkorra eta gaztedia. Bizkaiko erradiografia

Iraunkortasunerako lanean Konpromisoa eta etorkizuna

BIZTANLEEN MAHAIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

© Bizkaiko Foru Aldundia, 2014
Bizkaia21 Egitasmoa
IHEE – Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa
www.bizkaia21.net

Zuzendaritza eta edizioa: Iosu Madariaga eta María Uribe
Autoretza: Trinidad L. Vicente eta Fernando Mencia
Kordinazio Teknikoa: Noski Desarrollo Sostenible, SL.
Euskararen itzulpena: iBerba
ISBN: 978-84-7752-555-4
Lege-gordailua: BI-1464-2014

AURKIBIDEA

Sarrera	7
1. Helburuak	11
2. Metodologia	13
3. Iraunkortasunaren eta garapen iraunkorraren ezagutza.....	15
4. Iraunkortasuna eta bizi-kalitatea	23
5. Iraunkortasunaren esparruan administrazio publikoek egiten duten jarduerari buruzko balorazioa.....	39
6. Etorkizuneko lehentasunak.....	49
Ondorioak	53
Bibliografia	57
Eranskinak.....	61

Taulen aurkibidea

1. taula.	Aztertutako laginaren eta unibertsoaren osaera unibertsite-zenetroaren arabera	14
2. taula.	Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptuak ikasketetan agertzen diren eta horiei emandako garrantzia.	19
3. taula.	Gizarteak lortu beharreko helburuen artean alternatiba ezberdinak zein neurritan aukeratzeko diren	50

Grafikoen indizea

1. grafikoa.	Garapen iraunkorrari buruzko aipamena entzundako lekuak	16
2. grafikoa.	Unibertsiteko ikasketetan iraunkortasunaz eta garapen iraunkorraz hitz egiten entzun duzu edo entzuten ari zara?	17
3. grafikoa.	Iraunkortasunaren gaitan unibertsite-ikasketek eduki behar duten garrantzia	18
4. grafikoa.	Unibertsitean iraunkortasunari buruzko prestakuntza hobetzeko Aukerak	20
5. grafikoa.	Iraunkortasunari lotzen dituzten kontzeptuak	21
6. grafikoa.	Bizi-kalitatea bermatzeko alderdi garrantzitsuak	24
7. grafikoa.	Bizi-kalitatea bermatzeko alderdi garrantzitsuak. Unibertsiteko ikasleen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa	25
8. grafikoa.	Gogobetetze-maila norbere bizimoduaren hainbat alderdiri dagokionez	27
9. grafikoa.	Norberaren bizi-kalitateari buruzko balorazioa. Unibertsiteko ikasleen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa	29

10. grafikoa. Aitortutako garrantziaren eta antzemandako gogobetetzearen arteko erlazioa	30
11. grafikoa. Antzemandako bizi-kalitatea	31
12. grafikoa. Bizi-kalitatearen eta alderdi hauekiko gogobetetze-mailaren arteko erlazioa	33
13. grafikoa. Etorkizun hurbilean, nolakoa izango da zure bizi-kalitatea?	35
14. grafikoa. Etorkizunean bizi-kalitatea hobetzeko baldintza nagusia hau da	36
15. grafikoa. Iraunkortasunaren alderdi ezberdinen bilakaeraren hautematea	41
16. grafikoa. Garapen iraunkorraren hobekuntzaren pertzepzioaren indizea	43
17. grafikoa. Bizi-kalitatearen eta jasangarritasunaren arloetan herri-erakundeek burutzen dituzten ekintzen balorazioa .	46
18. grafikoa. Lehentasunezko jarduerak gure gizartean bizi-kalitatea eta iraunkortasuna hobetzeko	51
19. grafikoa. Galdera-sortari erantzuteko hautatutako hizkuntza	61
20. grafikoa. Inkesta bete duten pertsonen sexua.	62
21. grafikoa. Laginaren banaketa, unibertsitatearen arabera	63
22. grafikoa. Inkesta bete duten pertsonen adina.	64
23. grafikoa. Laginaren banaketa, ikasitako mailaren arabera	65
24. grafikoa. Inkesta bete dutenen ohiko bizilekua	66

1. SARRERA

Jarraian azaldutako txostenean, Bizkaiko Lurralde Historikoan garapen iraunkorrari buruz gazte unibertsitarioei egindako ikerketa kuantitatibo baten emaitzak aztertzen dira. Ikerketa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak 2010ean abiarazitako «Biztanleen Mahaia» izeneko Foroaren hirugarren edizioaren barruan dago, Bizkaia 21 Programan eta Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoan (IHEE) aurreikusitako herritarren parte-hartzeko jardueren esparruan.

Lehenengo edizioan, 2010ean, Bizkaia 21 Programan eta IHEEn aurreikusitako jarduerak biztanleengan oro har zuten inpaktua ebaluatzen ahalegindu ziren. Eta horretarako zenbait eztabaida-talde osatu ziren, herritarrek iraunkortasunaren ideiak zein neurritan ezagutzen eta bereganatzen zituzten eta Bizkaian ildo horretan izandako bilakaera nola ebaluatzen zuten ikertzeko asmoz. Gainera, egon zitezkeen eskaera berriak edo zaharrak detektatzen saiatu ziren, etorkizunean iraunkortasunari buruzko planak prestatzeko abiapuntutzat erabiltzeko asmoz. «Biztanleen Mahaia» lehenengo foroan burututako ikerketa aztertzeke asmoz egindakoa baino ez zen izan eta, beraz, metodologia kualitatiboa erabili zen, goian aipatu bezala.

Lehenengo ikerketa horrek Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasunaren kultura zein neurritan ezarrita zegoen ezagutzeko aukera eman zuen eta, bere bidez, iraunkortasuna sustatzeko politiken ezarpenean herritarrek hautemandako aurrerapenak neurtu zitezkeen. Hala ere, muga batzuk zituen:

- Ikerketa aitzindaria izateagatik ikerketa kualitatibo bat egin behar izan zen, ikergaiari buruzko aurreko azterketarik ez zegoelako. Iraunkortasunaren gaiari buruz gizartean dauden joera nagusiak azaltzeko aukera eman arren, ikerketa horren bidez, ezin izan zen neurtu ez biztanleriaren tamaina, ezta iraunkortasunaren kultura noraino ezarri den. Halaber, ezin izan zen zehatz-mehatz neurtu herritarrek garapen iraunkorra helburu duten iritzia.
- Ikuspegia zela eta, iraunkortasunaz eta garapen iraunkorraz herritarrek zuten pertzepzioa soilik ezagutzeko aukera ematen zuen. Horrela, hautemandakoaz harago, Bizkaian garapen iraunkorra benetan hobetzen ari zen jakitera ezin zen heldu¹.

Horregatik eta «Biztanleen mahaiaren» lehenengo foroaren mugak konponetze aldera, 2011ko ekitaldian bigarren edizioa egin zen, helburu hirukoitzaz:

- Bizkaian iraunkortasunaren aurrerapenaren neurketa objektiboa, adierazle objektiboen sistema garatuzetik abiatuta.
- Iraunkortasunean izandako aurrerakuntza eta hautemandako bizi-kalitatearen artean dagoen erlazioa aztertzea.
- Iraunkortasunaren eta bizi-kalitatearen bilakaeran erantzukizunak egozteari buruzko azterketa.

Ikerketa honek Bizkaiko herritarrentzako iraunkortasunaren hainbat alderditan aurrerapen berria ekarri zuen, izan ere, Lurralde horren biztanle guztiei dagokienez, emaitza adierazgarriak lortu ziren². Hala ere, ezin izan zen konfiantza-maila nahikoarekin ondoriorik atera interes espezifikoak duten taldeetarako, esate baterako, gazteria; baina, are gutxiago, talde hauen azpi-taldeetarako, adibidez, Unibertsitatean dabilen Bizkaiko gazteria.

Horregatik, biztanleria osoaren eta iraunkortasunaren arteko erlazioa sakonki aztertuta, biztanleen mahai-foroaren hirugarren ediziorako intereseko kolektibo espezifiko bati buruzko ikerketa bat egitea proposatu zen. Hainbat arrazoiengatik egin zen honako proposamen hau:

¹ «Biztanleen Mahaia» izeneko lehenengo Foroaren abiaburuak eta emaitzak hurrengo webgunean kontsultatu daitezke: www.bizkaia21.net

² «Biztanleen Mahaia» izeneko bigarren Foroaren abiaburuak eta emaitzak hurrengo webgunean kontsultatu daitezke: www.bizkaia21.net

- Unibertsitate-mailako biztanleria prestakuntza-prozesuaren amaierako fasean dago eta etorkizunean erantzukizun handiko lanpostuetan –teknikariak, erdi-mailako arduradunak eta zuzendaritzako kideak– sartzea espero dute. Beraien jarduerak eragin handia izan dezake sartuko diren herri-erakunde publiko eta pribatuen praktika iraunkorretan. Horregatik, iraunkortasunari dagokionez, herritarrak zein neurritan dauden sentibilizatuta jakiteko daukagun asmoaz gain, gure ingurunearen garapen sozioekonomikorako horri ematen dioten garrantzia ezagutu behar dugu.
- Gainera, hezkuntza formalaren sistemari esker, iraunkortasunean oinarritutako hezkuntzari buruz kolektibo honek dituen iritziak eta balorazioak jaso ditzakegu eta eremu honetan unibertsitateko nahiz batxilergoko eta lanbide heziketako ikastetxeek duten eginkizunaren lehenengo ebaluazioa egin daiteke.

1. HELBURUAK

«Biztanleen mahaiaren» hirugarren foro horri ekin diote aurretik aipatutako helburua betetzeko asmoz: unibertsitate-mailako ikasleen eta iraunkortasunaren nahiz garapen iraunkorraren arteko erlazioa ezagutzea. Horretarako, biztanle guztiekin dagoeneko jorratutako hurrengo alderdiak kontuan hartu ditugu:

- Bizkaitarrek iraunkortasuna eta garapen iraunkorra zein neurritan ezagutu eta ulertu dituzten zehaztea.
- Gaur egun dagoen sentsibilizazio-maila sortu duten baliabideak.
- Iraunkortasunari dagokionez, Bizkaiko campusetako unibertsitateko ikasleen kezkek zein alderdi eta gai duten ardatz eta kezka horiek eragiten duten arrazoiak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren alde egindakoaren eragina ebaluatzea eta burututakoa baloratzea.

Gainera, kolektibo honentzako hainbat alderdi berri sartu ditugu:

- Iraunkortasun eta garapen iraunkorrari buruz jasotako prestakuntza mailaren balorazioa.
- Hezkuntza alorretik iraunkortasun eta garapen iraunkorrari buruz hobetzeari dagokionez kontuan hartu beharreko jarduerak.

Azken informazio hau hezkuntza alorreko bi eremuri buruz jasoko da: unibertsitatean bertan jasotako prestakuntza eta bigarren mailako derrigorrezko hezkuntzaren ostean hartutakoa –Batxilergoa edo LH–. Izan ere, kontsultatutako herritarrek oraindik gogoratuko dute erraz Hezkuntzaren etapa hori.

2. METODOLOGIA

Aurretik aipatutako alderdi guztiei buruzko Unibertsitateko gazteen iritzia jasotzeko *online* inkesta egin da. Interneten bidez norberak administratu dezakeen inkesta da, baliabide horrek inkesta eta erantzun kopuru handiak azkar jasotzeko eskaintzen dituen aukera izugarriak kontuan hartuta. Gainera, aztertu nahi den kolektibo osoak internet erabiltzeko aukera dauka eta ohituta dago horrela egitera, oso helburu desberdinetarako bada ere, eta erabiltzeko trebatuta dago.

Kasu honetan, ez dugu aurkitu interneten bidezko inkesten arazo nagusietariko bat, adierazgarritasunari lotuta; izan ere, oso zaila da baliabide horrekin probabilitatean oinarritutako laginketak egitea (Díez de Rada, 2012). Oraingo honetan, Bizkaiko hiru unibertsitateen lankidetzak garrantzitsuari esker (Euskal Herriko Unibertsitatea –EHU–, Deustuko Unibertsitatea –UD– eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala –UNED), ez da laginketarik egin behar izan. Horren orde, aztertu nahi den unibertso osoari, hau da, Bizkaiko unibertsitateko ikasleria osoari galdetegiari erantzuteko aukera eman zaio.

2013ko apirilean, ikasle bakoitzaren unibertsitateko zentrotik igorritako mezu elektronikoen baten bidez, aztergaiaren kideei ikerketaren berri eman zitzaion, bai eta *online* galdetegira sartzeko helbide elektronikoa eman ere. Hala, Bizkaiko unibertsitateko zentroetan matrikulatutako guztiei «biztanleen mahaia» izeneko foroaren hirugarren edizio honetan parte hartzeko gonbidapena luzatu genien. Eta, aldi berean, erantzunak hamabost egunetan

jasotzeko epea hasi zen³. Aipatutako mezu elektronikoa ere horren berri ematen zen.

Betetako galdetegiak jasotzeko prozesua amaitutakoan eta datu-basea orraztuta (osatu gabe dauden galdetegiak kenduta, etab.), azken lagina 5.159 ikasleaz osatuta geratu da, Bizkaiko hiru unibertsitate-zentroetan modu proportzionalan banatuta. Ikerketa kuantitatibo honetan erabilitako lagin adierazgarriaren tamainaren arabera, konfiantza-maila %95,5ekoa da eta laginketa-errorea, berriz, +/-%2,6koa.

Hurrengo taulan aztergaiaren laginaren eta biztanleriaren osaera matrikulatutako unibertsitate-zentroaren arabera antolatuta ikusi daitezke.

1. TAULA

Aztertutako laginaren eta unibertsoaren osaera unibertsitate-zentroaren arabera

Unibertsitatea	Unibertsitateko biztanleria		Lagina	
	Ikasleak	Ehunekoa	Ikasleak	Ehunekoa
UPV/EHU	24.921	74,8	4.013	77,7
D.U.	4.857	14,6	636	12,3
UNED	3.550	10,7	510	9,9
GUZTIRA	33.328	%100	5.159	%100

Oro har, laginak biztanleriaren egitura «matrikulatutako ikastetxea» geruzatzeko aldagaiaren arabera adierazten du. Hala ere, EHU izatez dagokiona baino ordezkatuago dago eta Deustuko zein UNEDeko ikasleria berriz, azpiordezkatuta agertzen da, behar den bezala alderatutako datuen arabera. 1. eranskinen kontuan hartu beharreko hainbat datu erakutsi ditugu. Haien bidez laginaren egitura sakonago ezagutu daiteke.

³ Zenbait artikulutan adierazienez (Pratesi, et.al. 2004), eta ikerketa honetan bertan egiaztatu dugunaren arabera, online inkestak galdetegien erdia baino gehiago lehenengo lau egunetan biltzen dira.


3. IRAUNKORTASUNAREN ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN EZAGUTZA

«Iraunkortasuna» eta «garapen iraunkorra» terminoak Bizkaiko campuseko ikasle gehienek ezagutzen dituzte. Kolektibo honek baieztatzen duenez, herritarren multzo osoak baino ezagutza hobea dauka horri buruz, ikerketa honetan lortutako datuen eta 2011eko ikerketan Bizkaiko biztanleria osoarentzat islatutakoen arabera. Hala, unibertsitateko ikasleen %93ak entzun egin du iraunkortasunari buruzko zerbait (biztanleria osoaren %80arekin alderatuta) eta %95ak «garapen iraunkorraren» berri izan du (herritargo osoaren %84rekin alderatuta). Beraz, unibertsitateko ikasleek oro har termino hauek ezagutzen dituztela esan daiteke.

Gainera, inkestan iraunkortasunaren edo garapen iraunkorraren aipamena entzundako lekuari buruz ere galdetu zaie. Hedabideek eta publizitateak kontzeptuaren eraikitzaile gisa duten garrantzia agerian uzten dute emaitzek. Izan ere, ikasleen %88ak entzun egin du honen inguruko aipamenik hedabideetan eta %65ak berriz, publizitatean. Unibertsitateak iraunkortasunari eta garapen iraunkorrari buruzko ezagutza sortarazten laguntzen ari dela ematen du, ikasleen %61ek gai hauen aipamena eremu horretan entzun duelako (ikusi 1. grafikoa).

1. GRAFIKOA

Garapen iraunkorrari buruzko aipamena entzundako lekuak




Oharra: Ehunekoek ez dute 100 batu behar, pertsona bakoitzak erantzun bat baino gehiago eman ahal izan baitu.

Pisu txikiago izanda ere, eginkizun handia dute kontzeptu hauei buruzko ezagutzaren eraikuntzan unibertsitatekoak ez diren ikastetxeek, izan ere, ikasleen %38,5ek horietan entzun du iraunkortasunari buruzko aipamena. Udalek termino hauek ezagutzen lagundu dute unibertsitateko ikasleen %29aren kasuan. Norbere lanpostuari dagokionez, ikasleen %18ak ingurune horretan entzun du.

Gainera, unibertsitateak gai hauei buruzko ezagutza zabaltzeko nolako ekarpena egin duen eta ikasleek ezagutza hori nahikotzat jotzen duten sartu da ikerketan. Horretarako, alderdi hori beren beregi jorratzen zuen galdera bat sartu genuen inkestan: inkestatutako lau pertsonako batek sarritan edo hainbatetan entzun ditu iraunkortasunari edo garapen iraunkorrari buruzko aipamenak unibertsitateko ikasketak egin bitartean; beste %31k dioenez, zerbait entzun du eta %44ak gutxi edo ezer gutxi entzun gai horiei buruz (ikus 2. grafikoa).

2. GRAFIKOA

Unibertsitateko ikasketetan iraunkortasunaz eta garapen iraunkorraz hitz egiten entzun duzu edo entzuten ari zara?



Alderdi horri dagokionez, unibertsitatean diferentzia argiak igarri dira ikasleak dauden ikasketen, ikasketa-mailaren eta fakultatearen arabera. Alabaina, unibertsitatearen aldagaiari erreparatuta, UNEDeko ikasleen %30ak eta Deustuko Unibertsitateko ikasleen %29ak baieztatu dute iraunkortasunari eta garapen iraunkorrari buruzko aipamen asko edo nahiko entzun dituztela, EHUkoaren %24aren aldean.

Antzeko egoera ematen da segmentuak egiteko ikasketak burututako ikasketen fakultatearen aldagaia kontuan hartzean, izan ere, hurrengo fakultateetako ikasleen artean aipamen asko edo nahiko entzun da haien ikasketetan, batez bestekotik nabarmen gora: Ekonomia Zientziak, Zientzia Politikoak eta Soziologia, Zientzia eta Teknologia, Zientziak, Enpresa Ikasketak, Ingeniari-tza eta Lan Harremanak. Beste fakultate batzuetan ostera, biztanleria osoan baino ehuneko askoz murriztagoak dauzkate: Arte Ederrak, Gizarte eta Komunikazio Zientziak, Zuzenbidea, Hezkuntza, Erizaintza, Filologia, Irakasle-tza, Medikuntza, Nautika eta Psikologia.


Azkenik, gaiei buruzko aipamen asko edo nahiko entzun dutenen ehunekoaren eta pertsona horiek dauden ikasturtearen artean lotura handia dagoela aipatu behar dugu. Hala, lehenengo mailako ikasleen %17ak soilik garapen

iraunkorrari buruzko aipamen asko edo nahiko entzun dituela baieztatu duen bitartean, ehuneko hori %28koa laugarren mailan dauden artean eta gorago-ko ikasturteetako eta graduondoko ikasleen artean are handiagoa da.

Unibertsitateko ikasketetan horrelako gaiari emandako garrantzi-maila haien iritziz garrantzitsua den jakiteko, etorkizunean gaur egungoa baino garrantzia handiagoa, berdina edo txikiagoa eman behar zaien galdetu diegu. Honi buruzko datuak oso biribilak dira: ikasleen %70ak garrantzia handiagoa izan behar dutela esaten dute, %28ak gaur egungoaren garrantzia bera eduki behar dutela eta %2ak arreta txikiago eskaini behar zaiela uste du (ikusi 3. grafikoa).

3. GRAFIKOA

Iraunkortasunaren gaitan unibertsitate-ikasketek eduki behar duten garrantzia (Ehunekoak)



Gainera, datuek adierazten digutenez, unibertsitate-ikasketetan gai honi buruz zenbat eta gutxiago entzun, gero eta handiagoa da gai hauek haien ustez agerikoagoak izan behar direla uste dutenen ehunekoa (ikusi 2. taula).

2. TAULA


**Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptuak
ikasketetan agertzen diren eta horiei emandako
garrantzia. Ehuneko bertikalak**

Gai horiek eduki behar- ko luketen garrantzia	Iraunkortasunaz eta garapen iraunkorraz hitz egiten entzun duzu edo entzuten ari zara?					
	Askotan	Sarri samar	Noizean behin	Gutxi- tan	Behin ere ez	Guztira
Handiagoa	61,1	63,3	72,4	75,5	71,1	70,6
Berdina	36,5	34,4	26,2	23,3	25,0	27,4
Txikiagoa	2,4	2,3	1,4	1,2	3,9	2,0
GUZTIRA	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Bizkaiko unibertsitarioen artean iraunkortasun eta garapen iraunkorrari lotutako gaiak eskainitako interes handia ikusita, informazio hori jaso nahiko luketen modua ere aztertu da. Ikasle-talde handienak, %43ak hain zuzen, gaia dagoeneko eskaintzen diren ikasgaietan zeharka jorratzea nahiago du. Beste %14ak gai akademikoetan sartzea babesten du, gai horiei buruzko ikasgai propioak sortuta. Laurdena baino apur bat gehiago (%29) iraunkortasunari eta garapen iraunkorrari buruzko hitzaldi eta mintegi espezifikoak antolatzearen alde agertzen da. Horiekin batera, badago udako ikastaroetan edo unibertsitateko luzapenean sartzea lehenesten duen beste %7 bat. Unibertsitateko ikasleen %5ak baino gutxiagok ez du hartzen inolako aukerarik edo ez dauka gaiari buruzko iritzirik (ikus 4. grafikoa).

4. GRAFIKOA


Unibertsitatean iraunkortasunari buruzko prestakuntza hobetzeko aukerak



Azkenik, ikasleek iraunkortasuna eta garapen iraunkorra zeri lotzen dioten galdetu dugu. Hurrengo grafikoan egiaztatu daitekeenez, «ingurumenaren zaintza» eta «ongizatea» dira iraunkortasunaren eta garapen iraunkorraren ideiekin lotura handiena dutenak, unibertsitateko ikasleen iritziz. Hazkunde ekonomiko jarraitua da gutxien aipatu dutena.

5. GRAFIKOA

Iraunkortasunari lotzen dituzten kontzeptuak



4. IRAUNKORTASUNA ETA BIZI-KALITATEA

Ongizatea, bizi-kalitatea, iraunkortasunaren oinarritzko dimentsioa bada, lehenik eta behin ikasleen kolektibo horrek bizi-kalitate egokia izateko funtsezkoak izan litezkeen hainbat alderdiri ematen dien garrantzia ezagutu beharko dugu. Horretarako, hainbat alderdik pertsonen bizi-kalitatea bermatzeko duten garrantzia baloratzeko eskatu diegu unibertsitateko ikasleei. 1etik 5erako eskalan baloratu behar zuten: garrantzirik handiena aitortzeko, 5 puntu, eta garrantzirik gabeko alderdietarako, puntu bat.


Pentsatzekoa zen bezala, eta biztanleria osoari buruzko ikerketan ere halaxe gertatu zen, galdetutako alderdi guztietan puntuazio altua egon da. Dena dela, Bizkaiko unibertsitateko gazteentzat honako hauek dira bizi-kalitateko garrantzirik handiena duten faktoreak: osasuna, daukagunarekin zoriontsua izaten jakitea, erakunde publiko eraginkor eta zintzoak izatea, hezkuntza ona izatea, eta familia-harreman onak izatea (ikusi 6. grafikoa).

Ikasleen kolektibo horren ustez, bizi-kalitatea bermatzeko garrantzi handi-koak dira, baina aurretik aipatutakoak baino garrantzi gutxiagorekin: kirol eta kultur ekipamenduak, garraio publiko onak izatea, diru-sarrera egokiak izatea eta lan ona izatea. Eskuratutako emaitzetan deigarria da lehentasunen eskema hori antzera errepikatzen dela aztertutako biztanleriaren azpi-talde guztietan; izan ere, ez da alde nabarmenik antzematen batzuen eta besteen artean.


Oro har, datuok bat datoz 2011ko ekitaldian biztanleria osoari egindako ikerketaren emaitzekin.

6. GRAFIKOA

Bizi-kalitatea bermatzeko alderdi garrantzitsuak. 1etik 5erako eskalako batez bestekoa.



7. GRAFIKOA

**Bizi-kalitatea bermatzeko alderdi garrantzitsuak
Unibertsitateko ikasleen eta biztanleria osoaren
arteko alderaketa. 1etik 5erako eskala**


Nolanahi ere, hiru desberdintasun nabarmendu daitezke. Lehenengo eta behin, unibertsitateko gazteek garrantzi txikixeagoa aitortzen diote faktore horien multzoari, biztanleria osoak aitortzen diona baino. Bigarrenik, bizi-kalitatean garrantzia duten faktoreen artean, biztanleria osoak garrantzi handiagoa aitortzen die familia-arteak harremanei, unibertsitateko kolektiboak aitortzen diona baino. Eta gauza berbera gertatzen da diru-sarreraren faktorearekin, ziurrenik unibertsitateko kolektiboak bizitzako fase horretan prestakuntza lehenesten duelako, eta ez hainbeste berehala lana bilatu eta soldata eskuratzea.

Bestalde, deigarria da herritar guztien nahiz unibertsitateko kolektiboaren iritziz ingurumenak eta haren zaintzak tarteko posizioa hartzen duela bizi-kalitatea bermatzen duten faktoreen artean. Zehazki, garrantziari erreparatuta, zazpigarren postuan kokatu dute.


Unibertsitateko gazteek bizi-kalitatearen kontzeptua osatzen duten faktoreei aitortutako garrantzia ezagutu ondoren, aurretik aztertutako alderdietako bakoitzean euren bizi-kalitatearekin pozik dauden baloratzeko eskatu zaie. Berriro ere 1etik 5erako eskala erabili da: 1eko puntuazioak ez daudela batera pozik esan nahi du, eta 5eko puntuazioak, aldiz, oso pozik. 8. grafikoan laburtu dira eskuratutako emaitzak.

Bizkaiko unibertsitateko gazteak honako alderdi hauekin daude oso pozik (4tik gorako puntuazioa): familia-harremanak, osasuna, daukatenarekin zoriontsu izateko gaitasuna, gainerakoekiko harremanak, hezkuntza eta etxebizitza. Bestalde, gogobetetze-maila apalena (3tik beherako puntuazioa) lortu duten alderdiak honako hauek dira: eurei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko aukera, erakunde publikoen funtzionamendua, gizarte-zerbitzuak eta diru-sarrerak. Lau alderdi horietan lortutako gogobetetzearen inguruko puntuazioak oso baxutzat jo daitezke: 3tik beherako puntuazioa 1etik 5erako eskalan; suspentso argia, beraz.

Azkenik, gazte talde horrek gogobetetze ertaina du beste alderdi batzuekin, hala nola: garraio publikoekin, kirol eta kultur ekipamenduekin, ingurumenarekin eta euren aisialdiarekin. Atzera ere, ez da alde handirik antzeman aztertutako azpi-taldeen gogobetetze-mailan.

8. GRAFIKOA

Gogobetetze-maila norbere bizimoduaren hainbat alderdiri dagokionez. 1etik 5erako eskala




Unibertsitateko gazteen iritzia 2011n eskuratutako biztanleria osoaren iritziarekin alderatuta, berriro ere azaleratu da bi biztanleria-taldeen arteko sintonia handia (ikusi 9. grafikoa).

Dena dela, badaude aldeak bi taldeen artean:

- Ikasleen kolektiboan, osasunak bigarren postua lortu du gogobetetzeari; biztanleria osoari dagokionez, ostera, seigarrena, 4tik beherako puntuazioaz. Hein batean behintzat, biztanleria osoaren batez besteko adin handigoak azal dezake hori, zenbat eta zaharragoa izan osasunak arazo gehiago ematen baititu.
- Azpimarratzeko moduko bigarren alderdia hurrengo hau da: batzuk eta besteak bat datozela instituzioen funtzionamendua eta herritarren parte-hartzea onartzeko duten gaitasuna kritikatzeari. Puntu horretan, gazte unibertsitarioak biztanleria osoa baino are kritikoagoak dira.


9. GRAFIKOA

Norberaren bizi-kalitateari buruzko balorazioa. Unibertsitateko ikasleen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa


Instituzioek bizi-kalitatean esku hartzeko dituzten baliabideak mugatuak izanik, esku hartzeko esparruak lehenetsi egin beharra dago. Hala, herritarren ustez garrantzitsuenak diren baina gizartearen arreta gutxien jasotzen duten alderdietan jarri behar dira ahaleginak. Bizi-kalitatean proposatutako faktoreen garrantziari buruzko balorazio-datuak eta faktore horietan berorietan eskuratutako gogobetetze-mailari buruzko datuak gurutzatuta, 10. grafikoa lortuko dugu. Bertan errazago irudikatzen da informazio hori guztia, lehen-tasunak argi ezartzeko moduan.

10. GRAFIKOA

Aitortutako garrantziaren eta antze- mandako gogobetzearen arteko erlazioa




Berriro ere, agerian dago instituzio publikoei eta gizartearekiko duten zabal-tasunari buruzko pertzepzioa hobetuko lukeen esku-hartzea burutzeko premia, bizi-kalitatea hobetzeko lehen-tasuneko faktore moduan.

Unibertsitateko gazteek antzemandako gogobetetze-mailan eragiten duten alderdiei buruz egiten duten balorazioa ezagututa, euren bizi-kalitate globalari buruzko iritzia ere neurtu da 1etik (oso txarra) 10erako (oso ona) eskala batean. Batez besteko emaitza 7,7 puntukoa izan da, eta laginaren zati handiena 6 eta 9 bitarteko puntuazioetan zentratu da (ikusi 11. grafikoa).

11. GRAFIKOA

Antzemandako bizi-kalitatea. Ehunekoak. 0tik (oso txarra) 10erako (oso ona) eskala



Emaitza hori duela urtebete inguru biztanleria osoan lortutako 8,1eko puntuaziotik behera dago. Azken hiletan egoera sozioekonomikoak izan duen bilakaera negatiboak hein batean azal dezake alde hori, unibertsitateko kolektiboan bizi-kalitateari lotutako faktoreek izan lezaketen eraginak baino areago. Izan ere, oso litekeena da gaur egungo egoera ekonomiko negatiboan (dagoeneko luzaroan dirauen horretan) biztanleria osoari iazko inkesta berriz eginez gero, emaitzek beherako joera izatea, txosten honetan aztertutako kolektiboan eskuratutako mailatik gertu kokatzeraino.


Gainera, bizi-kalitateari buruzko iritziz globala oso egonkorra da ikasleen azpimultzo batzuetan eta besteetan, desberdintasun txiki batzuk antzematen bada ere. Estatistikoki garrantzi handirik izan ez arren, aipatu egingo ditugu:

- Emakumeek euren bizi-kalitate globalari buruzko balorazio hobeak egiten dute, gizonek baino (7,8 eta 7,6 hurrenez hurren).
- Deustuko Unibertsitateko ikasleek bizi-kalitateari buruzko balorazio hobeak egiten dute (8,0) EHUko ikasleek baino (7,7, biztanleria osoaren antzeko emaitza) eta UNEDekoek baino (7,3).
- Familiaburuak zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, bizi-kalitatean emaitza hobeak lortu dira. Hala, familiaburuak ikasketarik ez duen familietako ikasleen kasuan, 7,2ko balorazioa lortu da bizi-kalitatean; aldiz, familiaburuak unibertsitate-ikasketak dituen kasuetan, 7,8koa.
- Familiaburuak duen jarduerak ere eragiten du bizi-kalitatearen balorazioan. Familiaburuak lanean dabilen kasuetan balorazio hobeak lortu da (7,8), langabezia dagoen kasuetan baino (7,3).

Azken bi datu horiek kontuan hartuta, esan liteke estatus sozioekonomikoari lotutako adierazleek dutela eraginik handiena norberaren bizi-kalitatearen balorazio globalean.

Bizkaiko unibertsitateko ikasleek euren ongizateari eta haren alderdi zehatz batzuei buruz egiten duten balorazio orokorra aztertu ondoren, hurrengo hau aztertu da: alderdi zehatz horiekin pozik egoteak zer-nola eragiten duen bizi-kalitatearen balorazio orokorrean. Horretarako, bizi-kalitate orokorrekiko gogobetetzearen eta alderdi horietako bakoitzaren gogobetetzearen arteko erlazioa kalkulatu da, 0 eta 1 bitarteko puntuazioen bidez. 0 puntuazioak bi alderdi horien artean loturarik ez dagoela adieraziko luke, eta 1 puntuazioak erlazio goren dagoela, zentzu positiboan. Hau da, faktore horretan zenbat eta gogobetetze handiagoa lortu, orduan eta satisfazio-maila handiagoa lortzen dela norberaren bizi-kalitate orokorrean.

12. GRAFIKOA


**Bizi-kalitatearen eta alderdi hauekiko
gogobetetze-mailaren arteko erlazioa**


Datuak ikusita, esan liteke honako alderdi hauek gehien eragiten dutela norberaren bizi-kalitatearekin gogobetetze orokorrean: etxebizitza propioa, daukagunarekin zoriontsuak izateko gaitasuna, osasuna, diru-sarrerak eta familiako nahiz eremu zabalagoko gizarte-harremanak (ikus 12. grafikoa).

Erraz ikusi dezakegu itxuraz kontraesanak daudela antzemandako bizi-kalitatea zehazten duten faktoreen artean eta inkestatutako pertsonen adierazitakoen artean. Adibidez, pertsonen bizi-kalitatean eragiten duten faktoreak baloratzean, unibertsitatean ikasten duten gazteek garrantzi handienetakoa aitortu diote erakunde publiko eraginkor eta zintzoak izateari; halere, faktore horrek ez du erlazio zuzenik bizi-kalitatearen balorazio orokorrarekin. Beste muturrean, badirudi unibertsitateko ikasleen ustez diru-sarrera onak eta etxebizitza egokia izateak ez duela aparteko garrantzirik bizi-kalitatean; alabaina, bizi-kalitate pertsonala azaltzen laguntzen duten lau faktore garrantzitsuenen artean daude. Gainera, harremani eta oinarrizko beharrian materialak estaltzeari lotutako alderdiak dira bizi-maila pertsonalaren gogobetetzen gehien laguntzen dutenak; aldiz, gizarte-ekipamenduek eta dimentsio politikoak ez dute ia erlaziorik bizi-kalitatearekiko gogobetetze orokorrarekin.

Azkenik, eta atal hau ixteko, ikasle-kolektibo horri galdetu zaio ea euren ustez nolakoa izango den etorkizuneko bizi-kalitatea eta, batez ere, noren menpe egongo den hobetzeko aukera. Bada, etorkizuneko espektatibak edo itxaropenak baloratzean, kolektibo baikorra dugu aurrean: erdiek baino gehiagok uste dute euren bizi-kalitateak hobera egingo duela, eta laurden batek, aldiz, txarrera egingo duela. Beste laurden batek ez du espero aldaketa handiegirik, ez alde batera eta ez bestera (ikus 13. grafikoa).

13. GRAFIKOA

Etorkizun hurbilean, nolakoa izango da zure bizi-kalitatea?


Azpimultzoei erreparatuta, honako hau esan daiteke:


- Gizonak emakumeek baino gehiago uste dute etorkizunean haien bizi-kalitatea hobetu egingo dela (%48ak eta emakumeen %45ak). Ziurrenik, emakumeek lanari buruzko itxaropen eskasagoa izateak eragin lezake horretan.
- Bizkaian ikasi eta bizi direnak baikorragoak dira (%48) bertan ikasi arren herrialdean bizi ez direnak baino (%42).
- Deustuko Unibertsitateko ikasleak EHUKoak eta UNEDekoak baino baikorragoak dira. EHUKo ikasleak biztanleria osoaren batez beste-koan agertzen dira, eta UNEDekoen kasuan, berriz, %36ak baino ez du uste etorkizunean euren bizi-kalitatea hobetuko denik.

- Familiaburuak zenbat eta ikasketa-maila txikiagoa izan, orduan eta etorkizunean hobetzeko itxaropen handiagoa. Familiaburuak zenbat eta ikasketa-maila txikiagoa izan, orduan eta etorkizunean hobetzeko igurikimen handiagoa. Familiaburuak lehen mailako ikasketak dituen familien kasuan, ikasleen erdiek uste dute etorkizunean euren etxea hobetu egingo dela. Familiaburuak unibertsitate-mailako ikasketak dituen familien kasuan, ordea, %42k baino ez du uste bizi-kalitateak hobera egingo duenik. Pentsa daiteke familia apalagoetatik datozen ikasleen ustez, unibertsitatea gizartean gora egiteko modu eraginkorra dela.

Ikasle gehienek ustez, etorkizunean bizi-kalitatea hobetzeko pertsona bakoitzak horretan jarriko duen ahaleginak eta ekinak du garrantzirik handiena. Ikasleen %56 lotzen zaio izaera liberal eta indibidualista duen tesi horri. Aldiz, %44ren ustez, bizi-kalitatea hobetzeko aukera ingurunearen bilakaeraren eta gobernuen jardueraren menpe dago (ikusi 14. grafikoa).

14. GRAFIKOA

Etorkizunean bizi-kalitatea hobetzeko baldintza nagusia hau da



Segmentu soziodemografikoei erreparatuta, honako alde hauek antzematen dira:

- Gizonen nahiz emakumeen kasuan, gehiago dira bizi-kalitatearen hobekuntza norberaren ahaleginaren eta ekinaren ondorioz etorriko dela pentsatzen dutenak; halere, ehuneko hori pixka bat altuagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (%57 eta %55 hurrenez hurren).
- Bizilekuari so eginez gero, Bizkaian bizi ez direnek bizi-kalitatea aldatzeko konfiantza handiagoa jartzen dute ahalegin pertsonalean Bizkaian bertan bizi direnek baino (%57 eta %55 hurrenez hurren).
- Unibertsitatearen arabera, Deustuko ikasleen artean dago tesi liberal indibidualistaren aldeko ehunekorik handiena (%63), UNEDeko ikasleen aldean (%53a tesiaren alde agertzen dira). EHUko ikasleak, aldiz, biztanleria osoaren batez bestekoarekin bat datoz.
- Fakultatearen arabera, aldeak nabarmenagoak dira. Hala, karrera teknikoetan eta kudeaketari lotutako karreretan gehiago dira tesi liberal indibidualistaren aldekoak, eta Arte Ederretan nahiz Gizarte Zientzietan, aldiz, gehiago dira bizi-kalitatearen hobekuntza ingurunearen bilakaeraren eta gobernuen jardueraren menpe kokatzen dutenak. Dena dela, datu horiek ez dira sendotzat hartu behar, fakultate batzuetan bildutako erantzun kopuru txikia dela eta.
- Azkenik, familiaburuak zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, orduan eta altuagoa da tesi liberal indibidualista defendatzen duten ikasleen ehunekoa.

5. IRAUNKORTASUNAREN ESPARRUAN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK EGITEN DUTEN JARDUERARI BURUZKO BALORAZIOA

Jakina denez, erakunde publikoek, eta bereziki Bizkaiko Foru Aldundiak, lurraldearen garapen iraunkorra sustatzearen bidetik herritarren bizi-kalitatea hobetzeko hainbat plan garatu dituzte. Iaz biztanleria osoarekin egin zen bezala, unibertsitateko ikasleek esparru horretan garatutako politika publikoen inpaktuari buruz zer iritzi duten jakin nahi izan dugu. Horretarako, azken bi urteetan alderdi hauetan hobera egin den, txarrera egin den ala berdin jarraitzen den baloratzeko eskatu diegu:


- Ingurumenaren babesa:
 - Ingurumenaren zainketa.
 - Uraren erabilera arduratsua.
 - Basoen zainketa.
 - Airearen kalitatea.
 - Energia aurreztea.
 - Hondakinen tratamendua.
 - Herritarrei iraunkortasunari buruzko informazioa ematea.
 - Hirietako zarata.
 - Gutxiago kutsatzen duten energia alternatiboen erabilera.

- Azpiegitura eta ekipamenduak:
 - Garraio publikoaren kalitatea.
 - Bizikleta-bideak.
 - Udalerrietako ekipamenduak.
 - Kaleen peatonalizazioa.
- Talde bereziei babesa:
 - Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.
 - Adinekoei babesa.
 - Haurtzaroari babesa.
 - Desgaitasuna duten pertsonen babesa.
 - Langabeei babesa.
 - Euskerari babesa.
 - Kirolari babesa.
 - Pobretasun-egoeran dauden pertsonen babesa.

Balorazio horiek aintzat hartuta, hainbat interpretazio egin ditzakegu: adibidez, egoera batek txarrera egin ezean (hau da, hobera egin edo berdin mantentzen bada) aldekoa dela jo dezakegu. Hala eginez gero, unibertsitate-mailako ikasleek aldeko iritzi garbia dutela Bizkaian bizi-kalitatea hobetzeko egin diren ekintzei buruz. Ikuspegi horretan oinarrituz gero, kolektibo horren ustez, azken bi urteotan bi alderditan baino ez da egin txarrera: egoera txarrean dauden pertsonen babesean eta, zehatzago, langabeen aldeko babesean (ikusi 15. grafikoa).

15. GRAFIKOA

Iraunkortasunaren alderdi ezberdinen bilakaeraren hautematea. Ehunekoak




Ikuspegi zorrotzago bat erabiliz gero, alderdi zehatz batean hobera egin dela jotzeko, biztanleen %50ek baino gehiagok halakotzat jo behar du. Ikuspegi horren arabera, unibertsitateko ikasleen ustez azken bi urteetan soilik hobetu da hurrengo alderdietan: oinezkoentzako eremuak, bizikletetarako bideak eta energia aurrezteak.

Azkenik, ikerketa-taldearen ustez zera da ikuspegi egokiena: jarduera eta kudeaketa publikoa ontzat hartu behar da, baldin eta gehiago badira hobera egin dela uste dutenak, txarrera egin dela uste dutenak baino. Izan ere, -100etik 100erako indizea eraiki daiteke. Horretan, hobekuntza igarri dutenen ehunekoari egoerak txarrera egin duela uste dutenen ehunekoa kentzen zaie. Indize hori kontuan hartuta, hobekuntzaren pertzepzio argia dago hainbat alderditan. Adibidez, kaleak oinezkoentzat prestatzean, bizikletetarako bideetan, uraren erabilera arduratsuan, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, udal ekipamenduetan, hondakinen tratamenduan, ordezkotako energien erabileran, energia-aurrezpenean eta herritarrei iraunkortasunari lotutako informazioa eskaintzean (ikus 16. grafikoa).

16. GRAFIKOA

Garapen iraunkorraren hobekuntzaren pertzepzioaren indizea.
%ak hobera egin dela uste dut - %ak okerrera egin dela uste dut



Beste alderdi batzuetan, aldiz, galdekatutako pertsonen ustez egoerak txarre-
ra egin du, argi eta garbi: egoera txarrean dauden kolektiboentzako lagun-
tzan, langabeentzako eta adineko pertsonentzako laguntzan, pobrezia-arris-
kuan... Hirietako zaratari lotutako alderdiak ere txarrera egin du, pertsona
horien ustez.

Inkestatutako biztanleria azpimultzotan banatuz gero, multzo horietan guz-
tietan hobera eta txarrera egin duten alderdiei buruzko adostasun handia
dago. Halere, badaude azpimarratzea merezi duten aldeak ere:

- Emakumeek gizonen baino ikuspegi positiboagoa dute iraunkortasu-
naren bilakaerari dagokionez. Kontuan hartutako 20 alderdietatik
15ean emakumeek gizonen baino pertzepzio hobea dute. Aldiz, gizon
eta emakumeen berdintasunari dagokionez, iritzia bestelakoa da: gizo-
nen %43ren ustez alderdi horretan hobera egin du, eta soilik emaku-
meen %32k pentsatzen du berdin. Nolanahi ere, alderdi horretan txar-
rera egin dela uste dutenen ehunekoa antzekoa da gizonen eta
emakumeen kasuan, batzuen eta besteen artean %7k baitu uste hori.
Azken buruan, bi sexuentzat hobekuntza argia egon da alderdi horretan,
baina hobekuntza hori are nabariagoa da gizonen kasuan emakumeen
kasuan baino.
- Bizkaian ikasi eta bizi direnek kanpoan bizi direnek baino hobekuntza
-indize altuagoa dute kontuan hartu diren 20 alderdietatik 18tan. Bizkai-
tik kanpo bizi direnek bi alderditan baino ez dute hobekuntzaren per-
tzepzio altuagoa: bizikleta-bideetan eta ordezeko energien erabileran.
- Unibertsitatearen arabera banatuz gero, Deustuko ikasleek hobekun-
tzaren pertzepzio handiagoa dute ia alderdi gehienetan. UNEDeko
ikasleek dute hobekuntzen indizerik apalena, eta EHUko ikasleak
tartean gelditzen dira.
- Mailaka banatuta, goi-mailetan ari diren ikasleen taldeak biztanleria
osoaren batez bestekoa baino iritzi-indize apur bat baxuagoa dute. Be-
heko eta tarteko mailetan ari diren ikasleak, aldiz, biztanleria osoaren
batez besteko iritizitik gora kokatzen dira.
- Ikasketa-adarrari lotuta, iritziaren hobekuntzaren pertzepzioa biztan-
leria osoaren batez bestekotik behera dago hurrengoetan: Arte Ede-
rrak, Gizarte eta Komunikazioetako Zientziak, Gizarte eta Giza Zien-


tziak, Zientziak eta Teknologia, Hezkuntza, Filosofia eta Lan Harremanak. Beste muturrean, Ekonomia Zientzietan, Zuzenbidean, Enpresa Ikasketetan eta Zientzietan hobekuntzari buruzko iritzia biztanleria osoarena baino altuagoa da kontuan hartu diren ia alderdi guztietan.

- Familiaburuak duen ikasketa-mailari erreparatuta, Familiaburuak hezkuntza-maila apala duen kasuetan, hobekuntzaren pertzepzio-indizea biztanleria osoaren azpitik dago, oro har. Ildo beretik, familiaburu langabezia egonez gero, kasu horietan ere hobekuntzaren pertzepzioa biztanleria osoaren irizitik behera egoten da. Azken batean, berriro ere, familiaren estatus sozioekonomikoa funtsezkoa da iraunkortasunean garrantzitsuak diren alderdietan hobekuntzei buruzko ustea azaltzeko.

Jarduera publikoaren ondorioz aztertutako alderdietan egon den aurrerapenari edo atzerapenari buruzko iritzia zehaztu ondoren, bizi-kalitatearen eta garapen iraunkorraren esparruan izandako hobekuntzen meritua zein instituziori esleitzen dioten antzematen ahalegindu gara. Horretarako, instituzio batzuek eta besteek herritarren bizi-kalitatean izan duten ekarpena baloratzeko eskatu zaio azterketaren xedea den kolektiboari. Emaitzak zalantzagabeak izan dira: inkestatuen arabera, aldundiekin eta udalekin batera, instituzio akademikoak (ikastetxeak eta unibertsitateak) izan dira herritarren bizi-kalitatean gehien lagundu duten instituzioak. Hala, Eusko Jaurlaritza eta enpresak atzean gelditu dira jardun horretan (ikusi 17. grafikoa).

17. GRAFIKOA

Bizi-kalitatearen eta jasangarritasunaren arloetan herri-erakundeek burutzen dituzten ekintzen balorazioa



Biztanleria aldagaien arabera segmentatuta, ikusi daiteke talde guztiek anzerako ordenan baloratzen dituztela instituzioak. Dena dela, badaude egon alde txiki batzuk:

- Emakumeek gizonen baino balorazio pixka bat hobea egiten dute instituzioen jardunaz, udalen kasuan izan ezik, kasu horretan gizonen balorazioa hobea da eta.
- Bizkaian bizi diren ikasleen kolektiboak balorazio hobea egiten du instituzioen eginkizunaz, lurralde historiko horretan bizi ez diren unibertsitateko ikasleen kolektiboak baino.

- Deustuko Unibertsitateko ikasleek instituzio bakoitzaren eginkizunari buruzko balorazio positiboagoa egiten dute, UNEDeko eta EHUko ikasleen aldean.
- Berrero ere, goi-mailako ikasleek biztanleria osoak baino puntuazio txikiagoa aitortzen diote instituzioen eginkizunari.
- Fakultateka banatuta, berrero errepikatzen dira azterketaren beste alderdi batzuk baloratzean lortutako emaitzak: Arte Ederretako, Zientzia Politikoetako eta Soziologiako, Hezkuntzako, Filosofiako, Psikologiako, Lan Harremanetako eta Teologiako ikasleek aitortzen diote baloraziorik txarrena instituzio guztien jardunari.
- Familiaburuak ikasketa-maila apalena duen kasuetan, familia horietako ikasleek instituzioen jardunari buruzko baloraziorik txarrena egiten dute.
- Azkenik, familiaburua langabezian egon edo jarduera ekonomiko txarrean diharduen kasuetan, familia horietako ikasleak instituzioekiko are kritikoagoak dira. Atzera ere, estatus sozioekonomikoaren dimentsioa da biztanleriak bizi-kalitateari eta haren bilakaerari buruzko iritzian garrantzi handiena duen aldagaietako bat.

6. ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Mota honetako edozein txostenetako helburuetako bat honako hau da: herri-administrazioei laguntzea, etorkizunera begira haien jardura norantz zuzendu behar duten jakin dezaten. Gorago aipatu da bi alde daudela, unibertsitateko gazteen arabera, garrantzitsuak direnak herritarren ongizatea hobetzeko orduan: erakunde publiko eraginkorrak eta zintzoak egotea eta horiek ukitzen dituzten erabakiei eragiteko gaitasuna. Alde horiei garrantzi handia ematen zaie bizitza-maila altua lortzeko, eta, hala ere, gogobetetze-maila oso txikiak eskuratzen dituzte. Horregatik, horiek lehentasunezko bi jardura-eremu dira, erakunde horien irudian ageriko hobekuntza egin nahi bada.

Hala ere, lehentasun sozialen ikerketan are neurri handiagoan sakontzeko, azterlanean horri buruzko berariazko bi galdera egin dira. Horietako lehenengoan garapen iraunkorra osatzen duten lau eremuetatik (hazkunde ekonomikoa, herritarren partaidetza, ingurumenaren babesa eta gizarteratzea) zein lehenetsi beharko litzatekeen, beharrezkoa izatekotan, zehazten saiatu da. Horretarako, unibertsitateko ikasleei eskatu zaie bi aukeren artean haien ustez gailendu behar dena hautatzeko. Erantsitako 3. taulan emaitza nagusiak ikusi daitezke.

3. TAULA


Gizarteak lortu beharreko helburuen artean alternatiba ezberdinak zein neurritan aukeratzen diren. Ehuneko horizontalak

A aukera	A nahiago du	B nahiago du	B aukera
Gizarte-laguntzak garatu eta gizarte-egoera ahuleko pertsonak gizarteratzea	%82,7	%16,9	Ekonomikoki haztea
Erabakiak hartzeko gizartearen parte-hartzea sustatzea	%81,4	%18,3	Ekonomikoki haztea
Gizarte-laguntzak garatu eta gizarte-egoera ahuleko pertsonak gizarteratzea	%75,1	%24,2	Ingurumena zaintzea
Erabakiak hartzeko gizartearen parte-hartzea sustatzea	%64,0	%35,3	Ingurumena zaintzea
Ingurumena zaintzea	%62,1	%37,4	Ekonomikoki haztea
Gizarte-laguntzak garatu eta gizarte-egoera ahuleko pertsonak gizarteratzea	%57,2	%42,3	Erabakiak hartzeko gizartearen parte-hartzea sustatzea

Taula horretatik argi eta garbi ondorioztatzen dira zeintzuk diren lehentasunak, Bizkaiko campusetan ikasten dutenen ustez. Une honetan erabateko lehentasuna gizarte-laguntzak garatzea eta laguntza gehien behar duten kolektibo sozialak gizarteratzea da. Horien ondoren, partaidetza sustatu, ingurumena zaindu, eta hazkunde ekonomikoa bultzatu behar da. Berriro ere unibertsitateko ikasleen artean biztanleria osoarentzat nabarmendu diren lehentasunen egitura bera antzeman da.

Amaitzeko, eta Bizkaiko unibertsitateko biztanleek bizi-kalitatearen eta iraunkortasunaren esku-hartzearen inguruan dituzten lehentasunak modu zehatzagoan zehazteko asmoz, ikasleei eskatu zaie, haren ustez, arreta handiagoa jaso beharko luketen hiru jarduerak adierazteko. Ikuspegi horretatik, bost ekintza dira lehentasunezkoak: langabeentzako laguntza, pobrezia-arriskuan dauden pertsonentzako laguntza, energia-aurrezpena, ordezko energia ez kutsatzaileen erabilera, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena.

18. GRAFIKOA

**Lehentasunezko jarduerak gure gizartean
bizi-kalitatea eta iraunkortasuna hobetzeko**


Oharra: Ehunekoek ez dute 100 batu behar. Izan ere, gehienez, hiru jarduketa hautatu ahal ziren, haien garrantzi-ordena adierazita.

Alderdi sozialak berriro ere nabarmenak dira lehenespen horretan, alegia, aurreko ataleko emaitzak aztertzean atera den ikuspegi berdina. Eta hori logikoa omen da, kontuan hartzen badugu alde horiexek direla aurretik balorazio negatiborako joera handiagoa agertzen zutenak, azken urteotan izan duten bilakaeraren arabera.

Berriro ere analisiaren xede den kolektiboa azpitaldetan bananduta, horiek jarduera-eremuak lehenesteko hierarkia oso antzekoak agertzen dituzte. Hala ere, jarraian alde txiki batzuk aipatuko dira:

- Emakumeek gizonak baino askoz neurri handiagoan lehenesten dituzte genero berdintasuneko jarduerak. Izan ere, emakumeentzat hori bigarren gai garrantzitsuena da, pobrezia-egoeran dauden pertsonen laguntzeko jardueren atzetik. Gizonak, aldiz, ordezkoko energien erabilerari eta aurrezki energetikoari lotutako aldeak lehenesten dituzte. Izan ere, horiek lehenengo eta hirugarren gai garrantzitsuenak dira, esku-hartzeari dagokionez.
- Bizilekuaren arabera, alde adierazgarri bakarra honako hau da: bizkaitarrek pobrezia-egoeran dauden pertsonen laguntzeko programei ematen dieten lehenetasun berezia, eta euskarari laguntzeko programei ematen dieten balorazio txikiagoa. Lurralde Historiko honetan ikasi baina horretatik kanpo bizi direnek bestelako iritzia daukate.
- Unibertsitate zentroen arabera, EHUko ikasleak dira biztanle guztien lehenetasun profilarakin antz handiagoa agertu dutenak. Deustuko Unibertsitateko ikasleek besteek baino garrantzi handiagoa ematen diete pobrezia-egoeran dauden pertsonentzako laguntzari eta genero berdintasunaren sustapenari. Azken alde horrek bigarren lekua hartu du horien lehenetasunen zerrendan, nahiz eta, oro har kontuan hartuta, Bizkaiko unibertsitateko ikasleen lehenespenean hori laugarren lekuan dagoen.
- Mailen arabera, unibertsitate graduetakoko lehenengo mailetan dauden unibertsitate biztanle gehienak dira. Beraz, unibertsitateko ikasleek agertutako lehenespen profilaren antzekoa agertu dute. Goiko mailetakoko eta, batez ere, graduondokoko ikasleen azpitalde txikien artean alde handiagoak agertu dira, nahiz eta eredu zehatzik ez izan.

ONDORIOAK

Azterlan honen xedea Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren -UNED- Bizkaiko campusetako ikasle gazteek iraunkortasunari, Lurralde Historikoko egoerari eta erakunde akademikoek iraunkortasunaren kontzeptua hedatzeko duten konpromiso mailari buruz duten iritzia jakitea izan da.

Unibertsitateko gazteek aurretik aipatutako alde guztiei buruz duten iritzia jakiteko, *online* inkesta egin da. Inkesta hori Interneten bidez autoadministratu da, eta 5.159 ikaslek parte hartu dute horretan, guztira, Bizkaiko hiru unibertsitate zentroyen artean modu proportzionalen banatutakoek. Erabilitako laginaren tamainaren arabera, konfiantza-maila %95,5ekoa da eta laginketa-errorea, berriz, +/- %2,6koa.

Unibertsitateko ikasle horien artean iraunkortasunari eta bizi-kalitateari buruz gauzatutako inkestatik ondorioztatzen diren emaitza nagusiak laburbilduta, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Biztanle horiek jakintza zabala daukate iraunkortasunari eta garapen iraunkorrari buruz, eta nagusiki orekari, ongizateari eta ingurumenaren zainketari lotuta dauzkate. Ezagutza hori hedabideetatik eta publizitatetik aurrera eraiki da nagusiki. Hala ere, unibertsitate-zentroyek, bigarren hezkuntzako institutuek eta LHko zentroyek eginkizun garrantzitsua gauzatu dute eremu horretan, udalekin batera.
- Bai unibertsitatea bai horrek iraunkortasunari eta garapen iraunkorrari buruzko jakintza eraikitzen izan duen zeregina berariaz aztertu-

ta, antzeman egin da ikasleen laurden batek asko edo nahiko entzun dutela gai horiei buruz, eta %30ek adierazi dute zerbait entzun dutela horri buruz. Etorkizunera begira, unibertsitateko ikasleen %70i gai horiek garrantzi handiagoa hartzea gustatuko litzaieke. Izan ere, zenbat eta gutxiago entzun horiei buruz, gero eta interes handiagoa agertzen dute horiek ezagutzeko. Horri buruzko jakintza handitzeko modu gogokoena edukiak irakasgaietan zeharka gehitzea da, nahiz eta beste modu batzuk dauden, adibidez, hitzaldiak eta mintegiak, arlo horretako berariazko irakasgaien diseinua eta abar.

- Unibertsitatean ikasten duten biztanleentzat bizi-kalitatearen faktore erabakigarrienak honako hauek dira: osasuna, norberak daukanarekin zoriontsua izaten jakitea, erakunde publiko eraginkorrak eta zintzoak izatea, hezkuntza ona izatea eta familia harreman onak edukitzea. Ingurumenari buruzko gaiak eta gizarte, kultur eta kirol azpiegiturak ez omen dira hain garrantzitsuak, nahiz eta horiek ere balorazio altua duten.
- Bestalde, unibertsitateko gazteak gehienbat honako alderdi hauekin daude pozik: euren familia-harremanak, osasuna, daukatenarekin zoriontsu izateko gaitasuna, gainerakoekiko harremanak, hezkuntza eta etxebizitza. Hala ere, gogobetetze-maila apalena lortu duten bizi-kalitateari buruzko alderdiak honako hauek dira: eurei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko aukera, erakunde publikoen funtzionamendua, gizarte-zerbitzuak eta diru-sarrerak.
- Oro har, haien bizi-kalitateari Oso ongi ematen diote (10etik 7,7).
- Kolektiboko kide gehienek uste dute beren bizi-kalitatea etorkizunean hobetuko dela, eta gehienek uste dute hobekuntza hori beren ahalegin pertsonalaren arabera izango dela.
- Ikerketan landutako hirugarren alderdi garrantzitsua, garatutako politika publikoek garapen iraunkorreko hobekuntzak lortzeko duten eraginari buruz unibertsitateko ikasleek daukaten hautematea izan da. Horri dagokionez, hobekuntza argi eta garbi hauteman duten alderdi batzuk antzeman dira, adibidez, kaleak oinezkoentzat prestatzea, bizikleta-bideak, uraren erabilera arduratsua, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, udal ekipamendua, hondakinen tratamendua, ordezko energien erabilera, energia-aurrezpena eta

herritarrei iraunkortasunari lotutako informazioa eskaintzea. Beste alderdi batzuetan, aldiz, galdekatutako pertsonen ustez egoerak txarrerera egin du, argi eta garbi: egoera txarrean dauden kolektiboentzako laguntza, langabeentzako eta adineko pertsonentzako laguntza, pobrezia-arriskuan daudenak... Agerikoa da egungo krisi ekonomikoaren eraginak ekarritako egoera sozioekonomikoaren okertzeak alderdi horien balorazio negatiboan eragina izan duela. Eta badirudi hirietako zaratari lotutako alderdiak ere txarrerera egin duela, pertsona horien ustez.

- Bizi-kalitatearen hobekuntzan neurri handiagoan lagundu duten erakundeei dagokienez, nabarmena da zentro akademikoei -bai unibertsitatei bai institutuei- emandako balorazio ona. Udalek eta Aldundiak bidezko puntuazioa lortu dute, eta azken lekuan Eusko Jaurlaritza eta enpresak aipatu dira.
- Azkenik, Unibertsitatean ikasten dutenen ustez, administrazioek eta gizarteak lehentasunezko arreta eman beharko liekete zenbait alderdiri, eta horiexek ikertu dira. Kolektibo horren ustez, erabateko lehentasuna dauka gizarte-laguntzak garatzeak. Horien ondoren, laguntza gehien behar duten gizarte sektoreak gizarteratu, partaidetza sustatu, ingurumena zaindu, eta hazkunde ekonomikoa bultzatu behar da, ordena horri jarraituta. Alderdi zehatzei buruz berariaz galdetu ondoren, bost ekintza jo dituzte lehentasunezkoetat: langabeentzako laguntza, pobrezia-arriskuan dauden pertsonentzako laguntza, energia-aurrezpena, ordezko energia ez kutsatzaileen erabilera hala nola gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena ere. Era berean, ez da ahaztu behar arlo honetan jarduteko beharra; erakunde publikoen funtzionamenduari eta gizartera zabaltzeari buruz dagoen hautematea hobetzeko, izan ere, bizi-kalitatea hobetzeko lehentasunezko faktoreak dira.

Ikerketa honen bidez, Bizkaiko unibertsitateko gazteek bizi-kalitatearen egoerari eta iraunkortasunari buruz duten ikuspegiari buruzko lehenengo iritzia bildu da lurralde honetan. Gai horri buruzko geroko azterlanek etorkizuneko bilakaera zein den ikusteko aukera eskainiko dute, eta, horrela, iraunkortasunaren kultura oro har jarraitu nahi den ildotik doan antzeman ahal izango da, kultura horrek ingurumena eta natur baliabideak zaintzearekin bateragarria den hazkunde ekonomikoa eta soziala ezartzen duen neurrian.

BIBLIOGRAFIA

- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2005). *BIZKAIA 21 Egitasmoa. Garapen iraunkorrerako Bizkaiko Foru Aldundiako estrategia*. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia21.net>
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2007). *Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekintza Egitasmoa Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako (IHEE)*. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia.net>
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2011). *Bizkaia 21 Egitasmoa. 2011-2016*. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia.net>
- DÍAZ DE RADA, Vidal (2012). «Ventajas e inconvenientes de la encuesta por Internet», *Papers*, 97. liburukia, 1. zk., 193-223.
- ECOEUSSKADI 2020 (2011). *Euskadi 2020 Garapen jasangarrirako estrategia; 2011ko uztailak 5a*. Interneten eskuragarri: <http://www.ecouskadi2020.net/eu/documentos-clave/index.php>
- ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) (2001). *Euskadiko energia Estrategia 2010*. Interneten eskuragarri: <http://www.eve.es>
- ESTADISTIKA ERAKUNDE NAZIONALA (2007). «Medio ambiente y desarrollo sostenible» *Cifras INE, 2/2007*, Interneten eskuragarri: www.ine.es/revistas/cifraine/0207.pdf
- ESTADISTIKA ERAKUNDE NAZIONALA (2008). *Desarrollo sostenible 2008: Principales indicadores de España para el seguimiento de la estrategia de DS de la UE*. Interneten eskuragarri: <http://www.ine.es>

- EUROPAKO BATZORDEA (2010). Comunicación de la Comisión, de 3 de marzo de 2010, denominada «Europa 2020: Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador» [COM(2010) 2020 final – no publicada en el Diario Oficial]. Interneten eskuragarri: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CELEX:52010DC2020:ES:NOT>
- EUROPAKO BATZORDEA (2010), «Europa 2020: Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador», Documento COMO(2010) 2020, Bruselas 3/3/2010. Interneten eskuragarri: <http://ec.europa.eu>
- EUROPAKO BATZORDEA (2011). *Annex X: Progress report on the European 2020 strategy, communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Community of Regions. Annual Growth Survey 2012*; Brussels 23.11.2011, COM (2011) 815 final, Vol. 2/5 Annex 1. Interneten eskuragarri: <http://ec.europa.eu>
- EUROPAKO BATZORDEA (2011). *Communication from the Commission: Annual Growth Survey 2012*, Bruselas 23.11.2011, COM (2011) 815 final, Vol. 1/5. Interneten eskuragarri: <http://ec.europa.eu>
- EUROPAKO KONFERENTZIAKO PARTAIDEEK ONETSIA (1994). *Europako hirien gutuna jasangarritasunerantz (Aalborg-eko gutuna)*; Aalborg, 1994ko maiatzaren 27a. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia.net>
- EUROSTAT (2009). *Sustainable development in the European Union: 2009 monitoring report of the EU sustainable development strategy*. Interneten eskuragarri: <http://ecologic.eu/3231>
- EUROSTAT (2011). *Sustainable development in the European Union: 2011 monitoring report of the EU sustainable development strategy*, Luxembourg. Interneten eskuragarri: <http://epp.eurostat.ec.europa.eu>
- EUSKO JAURLARITZA (2009). *Urdaibaiko adirazpena; ekainaren 5a*. Interneten eskuragarri: <http://www.lehendakari.euskadi.net>
- EUSKO JAURLARITZA (2011), *Euskadi 2020ko garapen jasangarrirako estrategia*, Bilbo: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <http://www.ecoeuskadi2020.net>
- EUSKO JAURLARITZA. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (2007). *Euskal osasun inkesta 2007*. Interneten eskuragarri: <http://www.osakidetza.euskadi.net>

- EUSKO JAURLARITZA. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2012). *Euskal iritzi publikoaren urtekaria 2011*, Gazteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net>
- EUSKO JAURLARITZA. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA eta IHOBE ECOEUSKADI 2020 (2011). *Bizitza-kalitatea eta jasangarritasuna. Inkestak telefonikoa (2011ko maiatza)*, Interneten eskuragarri: <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net>
- EUSTAT eta IHOBE (2011). *Garapen iraunkorraren adierazleak 2011*. Bilbo: Eustat eta Ihobe. Interneten eskuragarri: <http://www.ecoeuskadi2020.net>
- IHOBE (2007). *Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. Ingurumen-adierazleak 2006*, Bilbo: Ihobe. Interneten eskuragarri: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>
- IHOBE (2011). *2011ko Ekobarometro Soziala: EAEko herritarrek ingurumenari buruz egiten duten balorazioa*, Bilbo: Ihobe. Interneten eskuragarri: <http://www.ihobe.net>
- IHOBE, UDALSAREA (2004). *Aalborg+10 Konferentzia: Aalborg +10 Etorkizunerako inspirazioa*, Aalborg. Interneten eskuragarri: <http://www.aalborg-plus10.dk/default.aspx?m=2&i=307>
- INGURUMEN ETA GARAPENARI BURUZKO MUNDUKO BATZORDEAREN TXOSTENEAN (BRUNTLAND BATZORDEA) (1987). *Nuestro Futuro Común*, Oxford: Oxford University Press.
- Lisboako Guttuna. Herri eta Hiri Jasangarrien Bigarren Konferentzia: «Gutunetik Ekintzara» (1996), Lisboa, Urriaren 6tik 8ra. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia.net>
- PRATESI, M. (et.al.) (2004). «List-based web surveys: Quality, timeliness and nonresponse in the steps of the participation flow», *Journal of Official Statistics*, 20. liburukia, 3. zk., 451-465.
- PROGRAMA DE LAS NACIONES UNIDAS PARA EL DESARROLLO (PNUD) (2013). *Informe sobre desarrollo humano 2012*, Nueva York: PNUD. Interneten eskuragarri: <http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh2012>
- VICENTE, T.L. eta MENDIA, F. (2012). *Bizkaian garapen iraunkorrak izandako bilakaera*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

*XXI. mendeko bileran udalerrietako buruek egindako Hannover-eko deialdia.
Hiri eta Udal Jasangarriei buruzko Europako Hirugarren Konferentzia:
«Udal agintariak Hannoverren egindako deialdia, XXI. Mendeko atarian»
(2000), Hannover, Otsailaren 9tik 12ra. Interneten eskuragarri: <http://www.bizkaia21.net>*

ERANSKINAK: LAGINARI BURUZKO DATU OSAGARRIAK


a) Galdera-sortari erantzuteko hautatutako hizkuntza

Hamar ikasletik ia zortzik gaztelania erabili dute galdera-sorta betetzeko; gainerako %20ak, aldiz, euskara.

19. GRAFIKOA

Laginaren banaketa, hautatutako hizkuntzaren araberakoa

Euskara (19,3)




Erdera (80,7)

b) Inkesta bete duten pertsonen sexua

Azterlan honetan parte hartu duten unibertsitateko ikasleen artean, emakumeak nagusitu dira: %60 inguru izan dira, gizonak %40 izan direla.

20. GRAFIKOA

Inkesta bete duten pertsonen sexua




c) Laginaren banaketa, unibertsitatearen arabera

Euskal Herriko Unibertsitatea da ikasle gehien dituena. Halaber, azterlan honetan parte hartu duten kide gehien biltzen dituena da. Horren ondoren, Deustuko Unibertsitatea eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UNED) daude, ordena horri jarraituta.

21. GRAFIKOA

Laginaren banaketa, unibertsitatearen arabera




d) Inkesta bete duten pertsonen adina

Laginarren adinen araberako osaera unibertsitateko kideen ohikoa da.

22. GRAFIKOA

Laginarren adinen araberako osaera




e) Laginaren banaketa, ikasitako mailaren arabera

Mailakako egiturari dagokionez, graduako 1. eta 4. mailen artean matrikulatuta daude azterlan honetan parte hartu duten hamar pertsonatik zortzi, eta hori unibertsitate egituraren beraren isla argia da.

23. GRAFIKOA

Laginaren banaketa, ikasitako mailaren arabera



f) Inkesta bete dutenen ohiko bizilekua

Ohiko bizilekuari dagokionez, lagineko partaideen %65 Bizkaian bizi ohi dira, eta %35, aldiz, Bizkaitik kanpo. Hala eta guztiz ere, eta Bizkaiko unibertsitate campusetan ikasten duten eta, beraz, lurraldearekin elkarreragin handia duten pertsonak direla kontuan hartuta, analisisan horiek kontuan hartzea erabaki da, datuak ohiko bizilekuaren arabera banakatuta, beharrezkotzat jo izan denean.

24. GRAFIKOA

Inkesta bete dutenen ohiko bizilekua

